

PORTALE / PORTALEA

Gramatika batzordea

1996-X-11

GRAMATIKA BATZORDEAREN TXOSTENA *PORTALE / PORTALEA* DEITURARI BURUZ

Eztabaidan diren deituren aurrean Gramatika Batzordeak, 1996ko urriaren 11n egindako bilkuran, Eibarko Udaletik egindako eskariari erantzunez, honako iritzi hau ematea erabaki zuen.

Funtsean, arazoa da ea Eibarko Kultura Etxeari ezarri nahi zaion izenak artikulurik behar duen ala ez: *Portale*-k ez luke eramango, baina *Portalea*-k nahiz *Portaleakoa*-k, bistan denez, bai.

Jakina da izen arruntek artikulua eskatzen dutela. Toponimiako hainbat izen berez arruntak izan ohi dira. *Portale*-ren kasua ere horrelakoa da. Hala ere, toponimian, bi jokabideak aurki ditzakegu. Urruti joan gabe, hor ditugu *Arrate* bera, *Errekatxo*, *Etxebarri*, eta beste hainbat, artikulurik gabe, gainerako artikuludunean ondoan. Gauzak horrela, gramatikaren ikuspegitik, berez, lehian dauden hiru deiturak zilegi izango lirateke kultura etxearen izen gisa.

Berez, zilegi da izen arrunt batetik izen propiora pausua ematea. Hori da hainbat erakunderekin gertatzen dena. Gure kasuan ere etxearen izena izen proiotzat har liteke. Arazoa, ordea, praktikoa da. *Portale* hautatzen bada, izen arrunt hau propio gisa erabiltzera beharturik egongo ginатеke, deklinabidean bereziki. Orduan, honelakoak esatera bortxatuak izango gara: “Portalen izango da hitzaldia”; “Portalek itxura ederra du” etab. Bildur gara, ordea, berez zilegi litzatekeen jokabide horrek eibartar euskaldunen belarriei min egingo ez ote liekeen. Kasu hauetan ere jendeari entzun behar zaio. Eta jendearen usadioa bestelakoa bada —eta hala dela pentsa daiteke— gramatikaren aldetik *Portale* zilegi izan arren, beste bi deiturak egokiago direla uste izatekoa da. Hauetako edozein hautatuz gero, azken *-a* hori artikulua denez, izen mugatu singularrean deklinatu beharko da beti: *Portalea*, *Portaleak*, *Portalean*, *Portaletik* (ez, **Portaleatik*), *Portaleko* (ez **Portaleako*), etab., nahiz *Portalekoa*, *Portalekoak*, *Portalekoan*, *Portalekotik*, *Portaleko* (ez, *Portalekoko*, noski), etab.

Deklinatzeko modu hau seguruenik guztiz ohikoa gertatuko zaie hiritarrei. *Portale* oinarritzat hartuta ateratzen diren deklinabide formak baino.

Kontu hauek begien aurrean izanik, Gramatika batzorde honen iritzia *Portalea* nahiz *Portalekoa*-ren aldekoa da.

Patxi Goenaga,
Gramatika batzordearen idazkaria